

## 5. Kanalak

GANVI-k bezeroekin harremanetan jartzeko hiru komunikazio-kanal ezberdin erabiliko ditu. Bata, posta elektronikoa izango da. Komunikazio-kanal honetako helburu nagusia bezeroen galderak argitzea izango da. Gainera, hauen bidez Euskal Herritik kanpo dauden jendearekin harremanetan jartzea lortuko dugu, hau da, gure enpresa zabaltzea lortuko dugu.

Bestetik, telefonoz kontaktatzeko aukera egongo da internet eskuragarri ez dutenentzat ala hitz egin nahiago dutenentzat.

Azkenik, panel fotovoltaikoen salmentarako webgune bat sortuko dugu. Webgunean informazio guztia agertuko da: panel bakoitzeko ezaugarriak, prezioak, erosketaren prozesua, produktua itzultzekotan zer egin, finantzatzeko azalpena, harremanetan jartzeko beste komunikazio-kanalak (gure posta elektronikoa eta telefono zenbaki bat)... Gainera, modelo berrien eta eskaintza guztien berri emango dira.

Eskaera egiteko hiru modu desberdin daude. Lehenengoa, errazena Euskal Herrian bizi bazara, gure denda fisikoan erostea da. Bigarrena, webgunetik eskatzea da eta azkena, telefonoz egitea enkargua. Eskaera egin ondoren, panelen garraioaz gu arduratuko gara eta honekin batera instalakuntza egingo duen langileak bidaliko ditugu.